

GIL 62 Omako haran itxia eta dolinak, eta Bolunzuloko hobia



Oma haranaren ikuspegia.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 23' 48,43" N

Long.: 2° 39' 27,32" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 527.729,07 m

Y: 4.804.935,62 m



Nola iritsi

Autoz, Gernika eta Arteaga udalerriak lotzen dituen BI-638 errepidea hartu behar da, eta, Kortezubira iritsi baino lehen, eskuinean dagoen saihesbide bat hartu behar da (BI-4244); "Santimamiñeko kobak" jartzen du kartelean. Lezika baserri-jatetxearen alboko aparkalekuraino jarraitu behar da errepidean. Bada beste aukera bat: Bizkaibusen Bilbo eta Lekeitio arteko autobusa hartu, Kortezubin jaitsi eta handik aurrerako bidea oinez egitea.



Boluntzulo hobia. Omake sakonune endorreikoko gainazaleko jariatze-urak infiltratzen dira han, beren sedimentu detritikoekin, eta lurpeko ibaia elikatzen dute.

Deskribapena

Basondo eta Oma haran endorreikoak (itxiak) eta haiei lotuta dauden dolinak eta hobiak, hala nola Boluntzulo, Ereñozarreko urpeko ur-masa osatzen duten materialetan daude (Ereñozar azpiunitatea).

NW-SE da haranak definitzen dituen norabide nagusia. NE zatia multzo urgondarreko arrezife-kareharriz eratua da; SW alderdia, berriz, multzo supraurgondarreko tuparriz eta hareharriz osatua da. Bi materialen arteko kontaktua garbia da, eta SW-rako okerdura du.


Basondo haran itxia luzanga eta zirkuluerd-itxurakoa da, eta 1,5 km luze eta 500 m zabal da gunerik baxuenean. Hondo laua da, eta hegoaldeko urak biltzen dituzten dolina eta hobi asko ditu. Lezika eta Kurtzio muinoek mugatzen dute; Kurtziok bereizten du Oma haranetik.

Oma harana ere itxia eta aurrekoaren antzekoa da. Morfologia luzanga du; 2,5 km luze eta 500 m zabal da, eta estutu egiten da ekialdera. Omaerrekak zeharkatzen du haranaren zati bat, eta, gero, Boluntzulo hobian lurperatzen da. Hondo laua du haranak, baina, Basondon ez bezala, ez dago dolinarik, hegoaldeko mazelako errekestoei elikatzen baitute Omaerreka.

Ereñozar azpiunitatea azalratzearen ipar-mendebaldeko muturrean sortzen diren iturburuak drainatzen dute. Iparraldean, Errekaldeko iturburuak daude; guztien artean, 100 l/s baino emari txikiagoa dute. Hegoaldean, Olalde iturburu dago, zeinak draina-



Kanpoko errekaen ekarpena jasotzen duen sistema karstikoaren barrualdea.



Olaldeko aforalekuak erregistratutako eguneko batez besteko emariak (l/s). 2010-2011 urte hidrokologikoa.

tzen baitu Ereñozarreko kareharriek betetzen duten eremuaren zatirik handiena. Gainera, zona endorreiko garrantzitsuen irteera da (Gabika-Nabarniz, kareharrizko azalera-tzearen iparraldean, eta Santimamiñe, Basondo eta Oma, hegoaldean).

Eremu horren zati handi bat nagusiki forma karstiko oso garatuetan sortzen diren iturburu bidez drainatzen da (metro batzuetako diametroa duten kobak, etab.); haietako batzuk haranaren hondoa baino gorago daude (metro batzuk).

Gainazalean, Oma erreka bideratzen du iturburu horien ekarpena ipar-mendebalderantz, Boluntzulo hobi ikusgarriraino, kareharrizko erliebearen oineraino alegia. Olalde iturburu sekuentziako geruza beretan sortzen da. Azpimarratzekoa da forma karstiko deigarrienen luzapena —besteak beste, aipatutako hobia eta Basondo eta Oma zona endorreikoen lerrotatzea— bat datorrela estratifikazioaren norabidearekin.

Olalde iturburuaren eta Boluntzulo hobiaren artean 2,75 km daude, eta 37,5 m-ko aldea dago kota batetik bestera. Guztira, 9,75 km² inguru drainatzen ditu Olalde iturburuak, eta Bizkaiko emaritsuenetako bat da. Batez beste, 240 l/s-ko emaria du, eta alde handiak izaten ditu; 11.000 l/s-tik gorako emari maximora iritsi da, eta 15-20 l/s-ko minimoetan ibili izan da agorraldi luzeetan. Kortezubi eta Arteaga urez hornitzeko erabiltzen da.

Ingurune horretako (eremu endokarstikoa) ur-fluxua sistema oso egituratu, antolatu eta nabarmen individualizatueta bideratzen da. Beraz, akuifero karstikoa da bete-betean. Bere infiltrazio-eremuaren bidez, zeina ez baitago urez ase, jasotzen du kanpoko ura sistema karstiko horrek. Ur-bolumen handiak biltzen ditu, aldi luzeago edo laburragoetan, eta infiltraziorik sakonena baldintzatzen du. Gero, sistemako eremu asera iristen da ura; han, hobiak (elementu transmititzaileagoak dira) izan duten garapen orokor handia dela eta, bat-bateko erantzuna agertzen da iturburuetan.

Behatzeko punturik onena

Eskala handiko GIL bat da. Basondo haranaren burutik, ondo ikusten da haran endorreiko-a. Oma eta Boluntzulo hobia ikusteko, *in situ*.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 15, GIL 97.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 63, GIL 81.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				●
	Tektoniko/Estrukturala	●			
	Estratigrafikoa	●			
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala: Interes kultural handiko eremua da: baso biziduna, Santimamiñeko koba eta abar.					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- Cruz-Sanjulián J. J. eta Morales, T. (1987): "Caracterización del Sistema Kárstico de Olalde a partir del análisis del hidrograma del manantial". *Estudios geol.*, 43: 71-77.
- Fernández de Valderrama, I. (2004). *Contribución al estudio hidrogeológico de la Unidad Kárstica de Santa Eufemia-Ereñozar (zona nororiental de Bizkaia). Aportación de los ensayos con trazadores al conocimiento del medio kárstico*. Doktore-tesia. Geodinamika Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea. 358 or.
- EEE (1996): *Euskal Autonomia Erkidegoko mapa geologikoa 1/100.000 eskalan*.
- Mendiá, M., Aranburu, A., Carracedo, M., González, M.J., Monge-Ganuzas, M. eta Pascual A. (2010). *Lugares de Interés Geológico de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Urdaibai Biosfera Erreserba, Eusko Jaurlaritz, 182 or. <http://www.euskadi.net/geodibertsitatea>
- Mendiá, M., Monge-Ganuzas, M., Díaz Pinto, G. eta González Lastra, J. (2011). *Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Geologia Interesguneen Gida-liburua*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz, 344 or.
- Morales Juberías, T. (1991): *Estudio Hidrogeológico de la zona norte de Vizcaya*. Doktore-tesia. Geodinamika Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- <http://www.telur.es/redbas/Red%20Basica%20de%20Control/Control%20Foronomico/Ficheros.html>